

**CATALUNYAREN ALDEKO ADIERAZPEN BATERATUA
ZEBERIOKO EAJ-PNV ETA EH BILDU TALDE POLITIKOENA**

“Espainiako Auzitegi Gorenak urriaren 14an eman zuen ezagutzera Catalunyaoko “procés”aren epaia: nazio hartako hainbat agintari politikoei eta sozialei 9-13 urte bitarteko espetxe eta inhabilitazio zigorrak ustezko sedizio eta bidegabeko erabiltze delituak egotzita.

Zeberioko EAJ-PNV eta EH BILDU alderdiena buruz erabaki benetan larria da, auzi politikoa denaren judizializazio arduragabea dakarrena. Izan ere, epaiak agerian utzi du estatuak botere judiziala tresna legez hartu eta gure herrien etorkizuna erabakitzeko eskubidearen aurrean, erantzun politikoa eman ezik, 155 artikulua eta espetxe zigorrak, besteren artean, aplikatu dituela.

Une oro esan dugu prozedura judizial hori ez zela sekula eta inola ere eman behar. Tinko salatzen dugu Catalunya gizaratearen ordezkari legitimoiei behin-behineko presoaldia ezarri izana, zigor hura larritu baino ez baitu egin oraingo epaiak, gatazkarekin amaitu baino bere gorenera eraman eta Estatuaren elkarbizitza demokratikoa astintzen du.

Gauzak horrela, Bilkurak berretsi egiten du oinarrizko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta gure elkartasun hurbila adierazten diegu egoera bidegabe honek kaltetutako Catalunyaoko herriari, independentista kondenatuei, haien senide eta lagunei, eta errepresio politikoa jasan duten erakunde politiko eta sozialei. Halaber, aldarrikatzen dugu neurrigabeko epai horrek behar duen erantzun irmoa kataluniar gizarateak baliatu izan duen bide beretik eramatea, bide demokratikoen bidez.

Herrien erabakitzeko eskubidea lantzeko konpromisoa ere gure egiten dugu, herrien asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratu eta erabakiak errespetatuak izan daitezzen. Horrela, gure etorkizuna eraiki nahi dugula berresten dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugun herrien eta bertako herritarren borondate librearekiko errespetutik abiatuta.

Espainiako jarduneko Gobernuari eta Espainiako gainerako indar politikoei deia egin eta eskatzen diegu auzi hau bide onetik eramatea, alde batera utzita demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkako errepresio estrategikoa. Elkarrizketa irekiari, eraikitzaileari eta demokratikoari aukera eman diezaiotela. Catalunyaoko herritarren gehiengoa asebetetzeko erantzuna emango dion benetako negoziazioa, herritarrek haien etorkizuna erabakitzeko eskubidea baitute.

Espetxeratuta dauden eta epai horrek kondenatzen dituen kataluniar ordezkarien askatasuna erreklamatzeko dugu, baita erbesteratuen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzala.

Deialdia egiten dio jendarteari deitutako mobilizazioetan parte hartzera.”

EAJ-PNVren bozeramaile
Beñat Iriondo Petralanda

EH-Bilduren bozeramaile
Laxia Olagorta Gomez